

SAKANAKO EUSKARAZKO HEDABIDEEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK: OINARRIAK

1. Oinarrien xedea eta zertarakoa. Deialdi honen xedea da Sakanako euskarazko hedabideak diruz laguntzeko modua arautzea.

2. Dirulaguntzaren onuradunak. Deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzen hartzaile izan daiteke Sakanan egoitza fiskala duen eta euskarazko hedabide baten jabea edo kudeatzailea den pertsona fisiko edo juridiko oro.

3. Dirulaguntzaren gaiak eta kontzeptuak. Honako hauek izanen dira:

- a) Euskarazko eguneroko prentsa eta aldizkariak, batez ere Sakanan zabaltzen direnak.
- b) Irratiak, Sakanan ohikotasunez emititzen dutenak.
- c) Sakanari buruzko berriak eskaintzen dituzten Internet bidezko hedabideak.

Ondoko hauek ez dute laguntzarik jasotzen ahaliko:

- a) Euskara erabiltzen duten gaztelaniazko hedabideek.
- b) Alderdi politikoek zein sindikatuek argitaratutakoek.
- c) Elkaratek edo fundazioek beren kideen artean banatzeko argitaratutakoek.
- d) Eskola-aldizkariak.
- e) Udal eta mankomunitateen informazio-aldizkariak.

Diruz lagundutako jarduerak 2024ko azaroaren 1etik 2025eko urriaren 31ren arteko aldiari dagozkionak izanen dira.

4. Dirulaguntzaren zenbatekoa. Helburu honetarako, guztira, 80.000,00 euro erabiliko dira, Euskara Zerbitzuko 2025eko ekitaldiko aurrekontuko 4 3350 4820002 (Euskarazko hedabideendako dirulaguntzak) diru-sailean jasotako kredituaren kontura.

Kopuru hori modu honetan banatuko da:

- a) Euskarazko eguneroko prentsa eta aldizkariak, Sakanan zabaltzen direnak: 40.000,00 euro.
- b) Irratiak, Sakanan emititzen dutenak: 10.000,00 euro.
- c) Sakanari buruzko berriak eskaintzen dituzten Internet bidezko hedabideak: 30.000,00 euro.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du eskumena esleituta duen organoak, aldaketaren zenbatekoaren arabera. Dena den, horrek ez du nahitaez beste deialdi bat egitea ekarriko.

Dirulaguntzek deialdiari esleitu zaion diru-kopurua gainditzen badute, aurrekontuetan gehienez ere aurreikusi den diru-esleipena behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean zatituko da, deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean betiere.

5. Deialdiaren publizitatea. Deialdi hau aditzera emateko, prentsa-oharra helaraziko zaie hedabideei. Horrez gain, deialdiaren testu osoa Sakanako Mankomunitatearen webgunean eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) jarriko da, eta laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

6. Eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak aurkezteko epea 2025eko martxoaren 31era bitartekoa izango da. Epe hori luzaezina izanen da.

7. Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da Sakanako Mankomunitateko bulegoetako erregistro orokorrean edo erregistro elektronikoaren bidez:

a) Eskabide ofiziala, behar bezala beteta.

b) Identifikazio fiskaleko txartela.

c) Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatza eta xehakaturia. Sarrerei dagokienez, bestelako erakunde publikoetan eta beste autonomia erkidego batzuetako administrazioetan eskatu edo harturiko laguntzak espresuki adieraziko dira, bai eta partikularrek edo enpresa pribatuek emandako bestelako diru-sarrerak ere (babesak eta publizitatea, esate baterako). Gastuei dagokienez, langileak eta kolaboratzaileak kontratatzetik sorturiko gastuak, ustiapen gastu orokorrak eta funtzionamendu- eta banaketa-gastuak hartuko dira kontuan.

d) Irratsaioen edo argitalpenen ezaugarriak biltzen dituen txostena. Hedabide idatziek (egunkariek eta aldizkariak) hauek aipatu beharko dituzte: orrialde-kopurua, aldizkakotasuna, argitaratzeko egunak, gaiak, egitura eta maketazio-mota, eta proiektuaren nondik norakoak zehazki jakiteko behar diren elementu guztiak. Laguntzak irratirako eskatzen dituztenek honako hauek adierazi beharko dituzte: saioen iraupena, emisio egunak eta orduak, gaiak eta programazioaren nondik norakoak. Beste komunikabideekin batera egindako programazioen berri eman beharko dute berriaz, horrelakorik balego. Internet bidezko hedabideen gainerako datuak: eguneratze-kopurua eta maiztasuna batetik, eta ikustaldiak, ikusitako orriak, ikustaldi bakoitzaren batz besteko denbora eta erreboteen ehunekoa, bestetik.

e) Eskabidea balioesteko aurkeztu nahi den gainerako dokumentazioa.

f) Aitorpena, helburu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebatzteke edo ebatzita dauden; azken kasu horretan, kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia erantsiko da.

Hona zer helbidetan aurkeztu behar den dokumentazioa:

Sakanako Mankomunitatea
Uriz 32
31830 Lakuntza

Edo:

Egoitza elektronikoan

Ez dira posta elektroniko bidez jasotako eskabideak aintzat hartuko.

Deialdiaren inguruko zalantza edo esatekoren bat izanez gero, Sakanako Mankomunitateko bulegoetara jo, euskara1@sakana-mank.eus helbidera idatzi edo 948 464840 telefonora deitu.

8. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak. Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskatzen ahal dituzte dirulaguntzak:

- a) Gutxienez ere aurrekontuko kopuru osoaren % 25 autofinantzaketa izatea.
- b) Sakanako Mankomunitatearekiko zerga-betebeharrak ordainduta izatea (Mankomunitateak ofizioz egiaztatuko du inguruabar hori eta behar den eginbidearen bitartez jasoko du).

9. Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea. Aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun emango zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Sakanako Mankomunitateko lehendakariak horretarako ebazpena egingo du.

10. Ebazpena. Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko ebazpena Sakanako Mankomunitateko lehendakariak hamabost eguneko epean emango du, Euskara Batzordearen irizpena aintzat hartuz.

Ebazpen hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie. Esleipen-ebazpenean dirulaguntza nori eman zaion zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurso-bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beste edozein errekurso-bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

Ebazpena eman eta ordaintzeko epea lau hilabetekoa da, gehienez ere. Dirulaguntza eman eta ordainketa agintzeko ebazpena emateko epea 2025eko abenduaren 31n amaituko da. Behin epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaro eta gero, eskaera ezetsitzat jotzen ahalko da.

11. Balioesteko irizpideak. Euskara Batzordeak eskabideak balioetsiko ditu, ohiko saioan, eta honako alderdiak izanen ditu kontuan:

a) Euskarazko eguneroko prentsa eta aldizkariak, Sakanan zabaltzen direnak.

- Urteko argitalpen-kopurua: 20 puntu.
- Ale bakoitzaren orrialde-kopurua: 20 puntu.
- Argitalpen bakoitzean zabaldutako ale-kopurua: 20 puntu.
- Irakurle-kopurua: 20 puntu.
- Finantzaketa-maila propioa: 10 puntu.
- Produktuaren kalitatea: 10 puntu.

b) Irratiak, Sakanan ohikotasunez emititzen dutenak.

- Ekoizpen-ordu propioak asteko: 20 puntu.
- Entzule-kopuru potentziala: 30 puntu.
- Finantzaketa-maila propioa: 25 puntu.
- Produktuaren kalitatea: 25 puntu.

c) Sakanari buruzko berriak eskaintzen dituzten Internet bidezko hedabideak.

- Sorturiko eta zabalduriko albiste-kopurua: 30 puntu.
- Bisita-kopurua: 30 puntu.
- Finantzaketa-maila propioa: 20 puntu.
- Produktuaren kalitatea: 20 puntu.

12. Dirulaguntzaren ordainketa. Lehendabiziko ordainketa dirulaguntzak esleitzeko ebazpenarekin batera eginen da.

Dirulaguntza 6 zatitan emanen dio Sakanako Mankomunitateak eskatzaileari, bi hilabeteen behin alegia. Horretarako, diruz lagundutako aldian egindakoari buruzko memoria zehaztua eta gastu zein diru-sarreraren frogagiriak aurkeztu beharko ditu. Horiekin batera, diruz lagundutako aldiari dagozkion ale idatzi guztiak aurkeztu behar dira. Ale horiek paperean edo euskarri informatikoan aurkeztu litezke. Ez da beharrezkoa izanen, argitaratu ahala, Sakanako Mankomunitatera bidali badira.

Onuradunak jarduera gauzatu duela behar bezala justifikatu ezean, ordainduriko laguntza osorik edo hein batean itzul dezala eskatzen ahalko zaio.

Onuradunen bati esleitutako laguntzaren zenbatekoa dokumentazio osoa ez aurkezteagatik, ez justifikatzeagatik edo epeak edo deialdiko oinarrietakoren bat ez betetzeagatik murrizten bada, soberakina gainerako onuradunen artean proportzionalki banatzen ahalko da.

Azken ordainketa baino lehenago egingo da diruz lagundutako epe osoari dagokion kitapena. Horretarako, Euskara Batzordearen irizpena beharko da. Dirulaguntzarako deialdiaren xedea betetzat hartuko da, proposatutako jarduera komunikatibo osoa gauzatu dela frogatuta dagoenean.

13. Bateragarritasuna. Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk objektu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada.

14. Emandako dirulaguntzen publizitatea egitea. Onuradunek eman zaien dirulaguntzaren publizitate egokia egin beharko dute, eta beren komunikabideetan adierazi beharko dute Sakanako Mankomunitatearen dirulaguntza jaso dutela.

15. Dirulaguntzen itzulketak. Dirulaguntza zati bat edo osoa itzuli beharko da ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

- a) Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- b) Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c) Egitasmoa aurkezturik eta dirulaguntza jasorik, gauzatu gabe uztea.
- d) Helburu bera duten eta bateraezinak diren dirulaguntzak aldi berean jasotzea.
- e) Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

16. Arau-hauste eta zehapenak. Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Arautegi Orokorrak aginduko dute.

17. Datuen babesa. Eskatzaileen datuak Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean ezarritakoaren arabera tratatuko dira. Eskatzaileek ematen dituzten datuak Sakanako Mankomunitateak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategietan sartuko dira. Betiere helburua izango da dirulaguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duen beste edozein administrazio-espediente kudeatzea. Fitxategi horren arduraduna Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua izango da, eta horietan sartu, zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak Sakanako Mankomunitateak duen jendearendako harrera-bulegoan (Lakuntzan, Uriz 32) egikaritu ahal izango dira.

18. Ordezko arauak. Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

19. Errekurtsoak. Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haien betearazteko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamuneari hasiko da epe hori.

SAKANAKO EUSKARAZKO HEDABIDEEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK: ESKABIDEA

Erakunde eskatzailea	
Izena	
Helbidea	
Herria	PK
①	E-posta
Kontu korrontearen zenbakia	
Arduraduna	
Izen-deiturak	
Hedabidearen fitxa teknikoa	
✓ Argitalpenaren izena ✓ Lege-gordailua eta ISSN ✓ Maiztasuna eta urteko zenbaki-kopurua ✓ Harpidetza-kopurua edo tirada ✓ Aleko eta urteko orrialde-kopurua ✓ Emisio-orduak astean eta urtean ✓ Lurralde-hedadura	
Aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak (azalpena eta kopuruak)	
Diru-sarrerak Harpidetzak Publizitatea Beste erakunde publikoetatik jasotako dirulaguntzak <u>Diru-sarrerak, guztira</u> Gastuak Langileen gastuak Funtzionamendu-gastuak Inbertsio-gastuak Ekoizpen-gastuak Zabalkunde-gastuak <u>Gastuak, guztira</u>	
Lekua eta data	
Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua	

Bildutako datu pertsonalak dirulaguntzen fitxategian gordeko dira. Horren helburua da Euskara Zerbitzuak ematen dituen dirulaguntzen eskaerak biltzea, erregistratzea eta kudeatzea. Dirulaguntzei buruzko Legea da datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa. Sakanako Mankomunitatea da datu pertsonalen hartzailea. Datu pertsonalak dirulaguntzei eta administrazio-prozedurari buruzko araudian ezarritakoari jarraikiz gordeko dira. Interesdunak berariazko baimena ematen dio Sakanako Mankomunitateari datuak tratatzeko. Aditzaera ematen dizugu eskubidea duzula edozein mementotan zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua murrizteko edota haren kontra egiteko. Horretarako, jakinarazpen idatzia bidali beharko duzu Sakanako Mankomunitatera, eta zure nortasuna egiaztatu beharko duzu zuzenbideak onartutako edozein bide erabilita. Halaber, aditzaera ematen dizugu egokitutako gero erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzula kontrol-agintaritzaren baten, hain zuzen ere, Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean.



**SAKANAKO EUSKARAZKO HEDABIDEEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK:
ZINPEKO AITORPENA**

Eskatzaileak hau aitortzen du:

☐ Entitatea ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.

☐ Laguntza eskabide honetaz aparte ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.

☐ Dirulaguntza eskatu diela beheko erakunde hauei:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

☐ Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskabiderik eginez gero, Sakanako Mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)